


SAN MARTIN AZOKA

AZAROAK 9



Euskal Pastizeak aurten ere salgai izango dira.

9:00 - Azoka osatzen duten saltokiak jarriko dira.

10:00 - Musika Eskolako Trikitilari Gazteak kalejiran ibiliko dira kaleetan zehar.

10:00 - 11:00 bitartean - Epaimahaiaren baliotapena.

11:00 - Azoka jendearentzat zabalduko da.

12:00 - Dantzak Txindurri taldearekin.

Eguerdian zehar - Astobusa.



13:00 - Oihane Valenciano eta Eneritz Aranburu Euskadiko trikitilari txapeldunen saria.

15:00 - Herri-bazkaria plazan. Babajana, eda-
ta, postrea eta kafea. Aldez aurretik 1.000
pzta. eta egunean bertan 1.200 pzta.

txartelak aldez aurretik hartu daitezke

Solozabal dendan eta Txalaparta tabernan,
edo bestela, egunean bertan txoznan 13:00
arte.

16:30 - Sari banaketa.

17:00 - Txerriaren zozketa eta larraindantza.


18:00 - "Irulita" txarangaren kalejira.



*Azoka den bitartean bi txozna izango dira za-
balik, bat talo ta otartekoekin ta bestea eda-
rickin. Taloak hartzeko ilaran ipini mesedez.



URRIAK 31 Bertso-afaria



21:00 - Zarauztarra jatetxean eta Iñaki Murua eta Andoni Egaña bertsolariekin. Txartela aldeaz aurretik erosi behar da Txalaparta eta Zarauztarran (1.500 pzta.).

Menua:

Pistoa
Piper beteak
Zankarroia
Postrea, ardoa eta kafea

AZAROAK 1-10 Txorimaloen erakusketa



Ermuko eskoletako umeek egindako txorimaloak ikusgai Zubiaurre 12an

AZAROAK 8 Zinea euskar

22:15 - Haur zein jende hel-duarentzako pelikula egokia. Mudo-Drogot-ek antolatua, Zinema izango da. Filme honek azaltzen dizkigu afrikar tribu baten ohiturak, siniskerak, bertako biztanleek naturarekiko duten fedebaita, dohakabe batzuk, indarkeriaz turik tribu honetan egiten duten sarrak bertako haurrak bahituz eta herri gusuntsituz.



LUC BES
HAU
LEHO

AZAROAK 16 Rock-kontzertua




Julio Kageta zenaren partaide batzuk daude Ermuko (nahiz eta Mallabian entseiatu) talde honen musikarien artean. Rock "hutsa" egiten dute. Maketa plazaratu berria dute.



Talde heavy hau elgoibartarra bada ere, gure herrian oso eza-guna da, bertako partaide den Javi Ermukoa baita. Aurten beraien bigarren diska kaleratu dute.

AZAROAK 22 Kontzertua



22:30- "Itoiz" taldeko abeslari ohia. Bakarlari 2 diska plazaratu ditu. Azken 8 urte hauetako jendeaurreko bere lehen agerpena Bilboko Kafe Antzokian egin zuen aurtengo ekainean. Gira honetan, Ermuaz gain, Getxo eta Hendaian bakarrik ikusi eta entzuteko aukera izango dugu.

AZAROAK 17 Jubilatuaren Egoitzan Ermuko Emakume Elkartearen eskutik gure herriko aspaldiko berriketak, erretratu zaharrez lagunduta



Jubilatuaren Egoitzan Ermuko Emakume Elkartearen eskutik gure herriko aspaldiko berriketak, erretratu zaharrez lagunduta

SAN MARTIN AZOKA

EUSKARAREN TZAT IRABAZI

Badator berriro ere, ia gainean dugu. Azaroaren 9a bertan dago, eta egun horretan San Martin Azoka ospatuko dugu Ermuan.

Duela zazpi urtetik hona egin den bezala, egun horretan Ermuko plaza Lea-Artibai, Durangaldea eta Deba-Behea bailaretako baserrietan sortutako produktuez beteko da aurten ere.

IV Baina zorionez, baserritarrek fruta, gazta, ezti eta barazkiekin batera, urtez urte hain ondo babestutako euren euskara bizia ere plazaratuko dute. Horixe da, hain zuzen, azoka honen antolatzaileon helburua, ermuarron bizimoduan egun bat euskararentzat irabaztea.

Jakin badakigu, egun horretan ere ez dela euskara izango Ermuko plaza eta kaleetan gehien entzungo den hizkuntza, baina urtero demostratzen den moduan, honen bidez euskaldunei erabil dezaten eta erdaldunei aldeko jarrera har eta azal dezaten aukera eskaintzen zaie. Eta askok aprobetxatu egiten du, zorionez.

Egun horretan Euskal Birusa elkarteak jartzen duen txoznarekin irabaziko den diruarekin ere euskararentzako irabazia izaten da, aldizkari hau hilerio argitaratu ahal izateko erabiltzen baita. Hori ondo baino ho-

aren erakusgarri bihurtu da bertako zein inguruko herrietako jende askorentzat. Hortik abiatuta, eta ondo merxetako onespren soziala aprobetxatuz, beste aurrerapausu bat emateko momentua heldu zaigula erabaki dugu, azoka horren antolaketan gure denbora, esfortzua eta ilusioa inbertitzen ditugunok.

Azaroan zehar emango dugun urrats berri hau kulturaren azalpen ezberdinetan oinarrituko da. Horrela bada, ohiko bertso-afariari aurten hau guztia gehituko zaio: Txorimaloen Erakusketa, zinea, rock jaialdia Ehun Kilo eta Dantzut taldeen eskutik, antzinarako Ermuari buruzko hizketaldiak, Gaztañerre eguneko kalejira eta afari herrikoia, eta Juan Carlos Perez abeslariaren kontzertua.

Aipatutako ekitaldi horiek guztiak, egitarau baten inguruan batzea herriko kolektibo eta Udaleko batzorde zenbaiten arteko elkarlanari esker izango da posible, eta guri dagokigunez, helburuak orain dela zazpi urte azoka antolatzen hasi gineneko berbera jarraitzen du izaten, hau da, euskararentzat irabaztea. Bejondeigula.

MANUEL MORENO



beto dakite antolatzaileez gain, taloak prestatuz, errifak salduz, txoznan txandak eginez edota bertan pote bat hartuz laguntzen dutenak.

Azoka horren arrakasta ukaezina da, eta gure herriaren dinamismo-